***Ella,*** Theodor Christensen, 1964, 35'
***Iré a Santiago,*** Sara Gómez, 1964, 15'.
***Y tenemos sabor,*** Sara Gómez, 1967, 30'.

ABENDUAK **23** (ostirala)
**20:00**
**11. saioa. Perspektibak III.**
***¡Viva la República!*** Pastor Vega, 1972, 100'.

ABENDUAK **30** (ostirala)
**20:00**
**12. saioa. Lente zabala**
***Girón,*** Manuel Herrera, 1972, 120'.


***Ezinezko zinema baten alde, dokumentala eta abanguardia Kuban*** (1959-1972)

# ZIKLOA:
## EUROPA, GEROALDI BURUTUA

Tabakalerak eta DSS2016EUk elkarrekin sortu duten ikerketa-egonaldiaren baitan Pablo La Parrak komisariatutako programa da. *Europa, geroaldi burutua* proiektuak film artxibo militantearen eta gaur egungo ikusizko eta arte praktiken arteko transferentziak esploratzen ditu.

URRIAK **15** (larunbata)
**20:00**
***Die Worte des Vorsitzenden (Lehendakariaren hitzak),*** Harun Farocki. Alemania RFA, 1967, 3'. JBAES.
***Concerning Violence,*** Göran Hugo Olsson, Suedia, 2014, 84'. JBAES.
Miguel Fernández Labayen-ek aurkeztua.

Bi liburu ikusiko ditugu: Mao Zedong-en *Liburu gorria* eta Franz Fanon-en *Lurraren kondenatuak*. Paperez egindako bi arma irudietara itzulita ikusiko ditugu. Lehenengo *Lehendakariaren hitzak* filmean, Harun Farockik, ironikoki serio hartzen du Maoren hitzak Alemaniako iraultzaile gazteek arma jaurtikor bezala hartu ditzaketelaren ideia. Eta berriagoa den *Indarkeriari buruz-en*, Göran Olsson-ek kolonialismoaren makineria xehatzen du collage baten bidez, zeinetan nahastu egiten diren Fanon-en testua eta zinemagile suediarrek 60 eta 70 hamarkadatan jaso zituzten Afrikako borroka antikolonialisten irudiak.

**25 > 26** AZAROAK (ostirala>larunbata)
**NAZIOARTEKO TOPAKETA: Hitzaren hartzea. Zine militantearen artxibategiarekin elkarrizketan**
Z aretoa

Ikertzaile, zinemagile eta artisten arteko elkarrizketa kritikoak proposatzen ditu topaketa honek. Elkarrizketa, proiekzio eta performance-en bidez zinema militantearen artxibategiak astinduko ditugu. Irakurketa eta begirada desberdinen bila, ahaztutako esperientziak eta oharkabe pasa diren keinuak arakatuko ditugu eta zinema bidez grabatu ziren 68ko borroka eta borroka politikoa lotu zituen arrazoiari zentzua bilatu. Hitz, irudi eta keinuen arteko hizketaldia, gaur egun zinema militantearen artxibategitik zer geratzen den galdetzeko.

ABENDUAK **10, 11** (larunbata, igandea)
Lantegia
**Zinetraktatu!**
Izen-ematea aldez aurretik.
Lantegia

Parisen 1968ko maiatzean izan zen matxinadan, zinemagile talde bat ciné-tracts delakoak ekoizten hasi zen, “zine-panfletoak”: ikus-entzunezko lan anonimoak, koste baxukoak eta lasterka egindakoak. Gertakarien abiadura frenetiko berdinaz zinema errepresentazio bat lortzeko saiakera bat. Zine-tract-ak euskarriaren baitan hausnarketa batetan oinarritzen ziren: 3 minutuko iraupena (pelikularen luzera) eta egitura sinple bat, testua eta argazkiak kamaran montatuz. Zinetraktatu! lantegiak abiapuntu bat dauka: zer gertatuko litzateke zine -tract-aren premisak gaur egungo ikus-entzunezko praktika digitaletara ekarriko bagenitu?

ABENDUAK **11** (larunbata)
**19:00**
**Stoffel Debuysere-ri gutun zuria**

*Europa, geroaldi burutua* programari amaiera emateko Stoffel Debuysere gonbidatu dugu saio hau komisariatu eta aurkeztera zinema militantearen artxibo eta praktika graikideen artean ematen diren trasnferentzien inguruan hausnartzeko. Debuysere, Courtisane jaialdiko programatzaileetako bat da eta Gante-ko KASK School of Arts-en irakaslea.

# ZIKLOA:
## KOMIKILABEA

*KomikiLabea* proiektuak komikiaren mundua esploratzen du eta arte horrek jorratzen dituen ikuspegi ezberdinak aztertzen ditu; bai alde artistikoa eta sormenezkoa, bai zuzenean zein zeharka baliatzen duen lengoaia, edozer auzi eta gai jorratzeko ahalmena duen aldetik.
DSS2016EU eta Gipuzkoako Foru Aldundiko kultura sailaren elkarlanetik sortu da, eta hiriko hainbat kultur eragileren babesa du: Donostia Kultura (Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea eta Donostiako udal liburutegien sarea), Kutxa Kultur, Kunshtal Goi Mailako Diseinu Zentroa, Kaxilda eta Tabakalera.
Lantegiak, konferentziak, eskola magistralak, erakusketak, emanaldiak eta tankerako jardueren bitartez, bi ildo nagusi landuko dira: bata fikzioarekin lotutakoa, horren zabala eta ezaguna den fantasiazko-generoa oinarri izanik; eta bestea ez-fikzioarekin harremana duena, pentsamendu kritikoa eta hausnarketa sustatuko duena, entseguarekin, kazetaritzarekin, dibulgazioarekin eta abarrekin etengabeko elkarrizketan.

Tabakalerako zinemak ere ospakizun honekin bat egin du zine garaikideko bi titulurekin:

AZAROAK **5** (larunbata)
**20:00**
***Bloody Dairy,*** Min Liu, Taiwan, AEB, 2015, 3'. JBAES.
***Seoul Station,*** Sangho Yeon, Hego Korea, 2016, 92'. JBAES.

# GUTUN ZURIAK

Zinemaldi, kritiko, artista eta nazioarteko programatzaileei gure pantaila aktibatzeko gonbidapena luzatzen diegu zinema lan ildo honen bidez.

ABENDUAK **16** (ostirala)
**20:00**
**FEMINISTALDIA 2016 - #PLAZA**

Feministaldia Plazandreokek bultzatutako kultura feminista jaialdia da. Bere XI. edizioan #Plaza hitza hartuz, topagune bat sortu eta kultura feminista publiko egin eta plazaratzeko helburua du.

Jeleton kolektiboaren parte den Gelen Alcántarak Feministaldiaren barruan ikus-entzunezko programa bat aurkeztuko du.

## KAMALEOIAK GARA! ZINEMAN

Hilean behin, publiko guztientzako ikus-entzunezko programazioa (animazioa, zine esperimentala, laburmetraiak...) aurkeztuko da, eta proiekzioaren ostean, lantegi eta dinamika ezberdinak planteatuko dira zinemarekin lotutako gaiak eta teknikak elkarrekin lantzeko.

*+ Info: 51 orrian.*

AZAROAK **6** (igandea)
**12:00**

ABENDUAK **11** (igandea)
**12:00**

URRIAK **7, 8 eta 9**
(ostirala, larunbata eta igandea)

## NAZIOARTEKO ZINE MINTEGIA

Izen-ematea aldez aurretik
Prezioa: 50€ bazkaria barne.

Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroak, lehen zine mintegia antolatu du: hiru egun proiekzio aretoaren barruan ikus-entzunezko materialak ikusteko eta testuak, prozesuak, elkarrizketak, eztabaidak eta pantailaren alde bateko eta besteko topaketak elkarbanatzeko. **Javier H. Estrada, Beatriz Leal eta Elena López Riera**ri eskatu diegu erreferentzia akademiko, teoriko eta ikus-entzunezkoek osatutako ibilbide bat marrazteko artista gonbidatuen obra aurkezteko: **Safia Benhaim, Filipa César, Oliver Laxe, Camilo Restrepo eta Vincent Meessen.**

Programa hau DSS2016EUren *Elkarrizketak* lan ildoaren barne kokatzen da.




***Nazioarteko Zine Mintegia***

## TABAKALERAN PROGRAMATZEN DUTE

Tabakalerako zinema aretoa erakunde, elkarte, asoziazio... desberdinek programatuta.

URRIAK **22** (larunbata)
Topaketa

### ZINEMA DOKUMENTALA ETA MEMORIA: PATRICIO GUZMANEKIN TOPAKETA

Patricio Guzmán
**18:00 ES**
Z aretoa

Cristina Enea Fundazioak antolatutako saioa.

Nazioartean ospe eta sonarik handiena lortu duten Txileko zinemagileetako bat da Patricio Guzman. Txilen izandako estatu-kolpearen ostean, Santiagoko Estadio Nazionalean eduki zuten preso, inkomunikatua eta fusilatua izateko mehatxupean. 1973ko azaroan utzi zuen bere sorterria. Geroztik Kuban, Espainian eta Frantzian egon izan da eta gaur egun azken herrialde horretan bizi da. Bere obretako sei Cannesko Zinemaldian estreinatu dira, eta horien artean ***La Batalla de Chile, El Caso Pinochet, Salvador Allende eta Nostalgia de la Luz*** nabarmendu daitezke. Azken film horrekin Europako Zinemaren Akademiak emandako Sari Nagusia jaso zuen 2010ean. Guzmanek filmatutako azken obrak, ***El Botón de Nácar*** izenekoak, Zilarrezko Hartza irabazi zuen Berlinen 2015. urtean. Hollywood-eko Akademiako kide izatera gonbidatu zuten 2013an, eta FIDOCS Santiagoko Zinema Dokumentalaren Jaialdiko presidentea eta fundatzailea da. British Film Institute edo Harvard Film Archive bezalako erakundeek atzera begirakoak eskaini izan dizkiote berriki.

Proiekzioa
**20:00**
***El botón de Nácar,*** Patricio Guzmán, Txile, 2015, 82'.
Zuzendariarekin.

AZAROAK **12** (larunbata)

### GEHITU: PREMIO SEBASTIANE

Gehitu-k, Euskal Herriko gay, lesbiana, bisexual eta transexualen elkarteak antolatutako saioa. Zinemaldia-ren esparruan Gehitu-k ematen duen saria da Sebastiane saria. Honek, LGTB kolektiboaren errealitateak, askatasunak, eta aurrerapen sozialak hobeto islatzen duen ekoizpena saritzea du helburu zinemaldiko edozein lehiazko sailetan.

Saria 2000an jaio zen Zinemaldiaren barruan film hauei iksugarritasuna emateko helburuz.

***Nunca vas a estar solo,*** Alex Anwandter, Txile 2016, 82'.



*Hiru Zirkulazioak*
SUBSTANTZIA AKTIBOA

# PROGRAMA PUBLIKOAK

Programa publikoen xedea, elkarrekin lotura duten jarduera sail baten bitartez, hausnarketa eta eztabaida sustatzea da, izan lantegi, mintegi, aurkezpen, proiekzio edo solasaldi moduan.

Aurkibidea

**BIZIGARRIAK. ZIRKULAZIOA ETA EUFORIA**
· HIRU ZIRKULAZIOAK
· KEAREN POLITIKAK
· EZORDUAN
**ENTZUMENAREN BEHATOKIA**
**HIRIA ETA BESTELAKO POLITIKAK**
**ARKITEKTURA FIL MINTZAIRAK “EUROPA TOMADA”**
**SISTER OF ANOTHER MAMA**
**LAPUBLIKA**
**SOUND CINEMA - CITYSCAPES**
**FEMINISTALDIA**

# BIZIGARRIAK, ZIRKULAZIOA ETA EUFORIA

IRAILAK **29, 30,** URRIAK **1**
(osteguna > larunbata)
Mintegia

## HIRU ZIRKULAZIOAK "substantzia aktiboa"

*Hiru zirkulazioak* mintegian «substantzia aktiboen» inguruan taxututako hiru zirkulazio plano edo dimentsio hartuko dira aztergai. «Substantzia aktiboek» marrazten dituzten ibilbideak heterogeneoak eta birtualki mugagabeak badira ere, planetako jarduna eta bizia egituratzen eta baldintzatzen duten hiru dimentsiotan sailkatu daitezke: giza gorputzaren zirkulazioa, merkantzien zirkulazio globala eta, lurretik haratago joaz, zirkulazio kosmikoa deritzona.

IRAILAK **29** (osteguna)
Aurkezpena + Hitzaldia
*Oier Etxeberria, Pablo Lafuente.*
**19:00 ES**
Z aretoa

Hitzaldia
**UNA, DOS, TRES... CIRCULACIONES**
*Max Jorge Hinderer Cruz.*
**19:30 ES**
Z aretoa

*Hiru zirkulazioak*: substantzia aktiboa izeneko nazioarteko mintegiaren aurkezpena eta hasierako hitzaldia. Topaketak estimulatzaileen, sentikortasunaren eta mugimenduaren inguruan jasotzen dituen ikerketa lerro nagusiak eta ikuspegi teoriko desberdinak azalduko dira bertan.

IRAILAK **30** (ostirala)
Hitzaldia
**LA LEYENDA DE LA COCA**
*Jorge Hurtado*
**17:00 - 19:00 EN + ES**
Z aretoa

Kokaren elezaharrak, analisi jungiarraren argitan,

Jungeren analisiaren arabera, Kokaren kondairak zehaztasun handiz erakutsi du koka landarearen eta haren deribatuen errealitatea eta lagundu egin du garrantzi handiko irtenbide politikoak aurkitzen.

Performance-aurkezpena
**INES DOUJAK / JOHN BARKER**
**19:30 EN + ES**
Lantegia

Zer esan barruko nahiz kanpoko formez, eta zer esan tarteko espazioaz? Zekalearen substantziaz hitz egingo dugu eta baita bere alkaloidea den LSDaz ere, kontzientzia askatzen duen neuroatezain bat balitzan, edo edukiontzi hutsa baino zertxobait gehiago den larruazalaz bestela, eta baita nazkaz ere, hesi emozional eta politiko gisa.

URRIAK **1** (larunbata)
Mahai ingurua
*Lorea Alfaro, Erick Beltrán, Ibon Aranberri y Fernando Palma.*
**11:30 - 14:30 EN + ES**
Z aretoa

*Hiru zirkulazioak: substantzia aktiboa* mintegiko artisten aurkezpena eta mahaia-ingurua, bertan jorratuko diren planteamendu orokorren inguruan.

Hitzaldia
**ASKATASUNA ETA SEGURTASUNA**
*Antonio Escohotado*
**19.00 ES** Z aretoa

Alderdi bien, askatasunaren nahiz segurtasunaren, funtsezko izaera alde batera uzten zentratutako ahaleginen errepasoa, hasi Erdi Aroko Inkisiziotik eta Iraultza frantziarraren garaiko epaitegietaraino, tabakoaren kasuari arreta berezia eskainiz.

# KEAREN POLITIKAK

*Kearen Politikak* programaren barne, 2016 urtean zehar gonbidatu ezberdinen bitartez zenduriko autore ezberdinen hitzaldiak taularatu, ahoskatu eta komentatuko dira.

URRIAK **27** (osteguna)
Hitzaldia
**ARRAZIONALIZAZIOA**
*Simone Weil por Esteban Zamora*
**19:00**
Z aretoa

Hau izan zen Simone Weilek (Paris, 1909 – Ashford, 1943) bere bizitzan eman zuen hitzaldi bakarra, 1937ko otsailaren 23an, langileez osatutako publiko baten aurrean. Hain berezkoa duen sentsibilitatearekin, langilearen gorputza tresna izatera murrizten duen arrazionalizazio-prozesuaren gorabeherak aztertzen ditu pentsalariak hitzaldi honetan, eta prozesu horretan lortutako produktuak aldiberean, bere atsekabea munduan zehar zabaldu besterik egiten ez duen makina batentzako erregaiak baino ez direla azaltzen du. Weilek ez du soilik termino ekonomikoetan aztertu nahi langileei jasanarazten zaien zapalkuntza, eta honela dio bere testuan: «Langileek ez dute ordainsari murritzengatik sufritzen bakarrik. Egungo gizartean maila apalago batera baztertuta daudelako ere sufritzen dute, morrontza moduko batera murriztuak daudelako».

Esteban Zamora Godoy filosofiako irakasle gisa lizentziatua Santiago de Txileko UMCE Hezkuntza Zientzien Unibertsitate Metropolitarrean.

AZAROAK **24** (osteguna)
**MONTECRISTIKO MANIFESTUA**
*José Martí Josebe Martínez bidez*
**19:00**
Z aretoa

José Martí (Habana, 1853- Dos Ríos, 1895) olerkari, pentsalari eta Kubako Alderdi Iraultzaileko sortzaileak idatzi zuen "Montecristiko manifestua" (1895ko martxoaren 25a) Espainiarekiko mendekotasunaren aurka eta Kubaren independentziaren aldeko gerra (1895-1898) piztuko zuen aldarrikapena izan zen. Kubako herriari espainiar gobernuaren aurka altxatzeko deia egiten du manifestuak, bere horretan dirauen ordena koloniala salatu, eta gogo nazionala eta mestizajea aldarrikatzen ditu.

Josebe Martínez Hispano-amerikar Literaturako irakasle titularra da UPV/EHUn.

# EZORDUAN
## LOUDER, FASTER, STRONGER.

Musikaren hiztegian *tempoa* musika pieza jakin bati ezartzen zaion abiadura da. Erritmoa patroia litzake, tempoa aldiz abiadura, azkartasuna. Musika gehienak, eragiten dituzten kolpeen abiaduraren arabera sailka baitaitezke, denbora eta musika

algoritmo digitalen arabera sailkatzen zaigun garaian, abiadura gure musikaren pertzeptzioaren faktore garrantzitsu bihurtu da. Agerian uzten du helburua, funtzioa. Jardunaldi honetan musikaren eta abiaduraren, tempoaren eta denboraren arteko harreman eta paradoxetan murgiltzeko aukera izango dugu..

AZAROAK **17** (osteguna)

Aurkezpena

***Xabier Erkizia***

**19:00 ES** Z Aretoa

Entzunaldia

### EARLY MINIMALISM VOLUME ONE (1964-1965)

*Tony Conrad (1940-2016)*

**19:30 ES** Z Aretoa

Tony Conrad (1940-2016). 60 hamarkadako iparramerikako kultur mugimendu biziaren parte izan zen konposatzaile, filmegile eta irakaslea. La Monte Young, Marian Zazeela edo John Cale (The Velvet Underground) bezalakoekin The Dream Syndicate taldeko kide izateagatik ezagun egin bazen ere, New Yorkeko zinema esperimentalaren zirkuitoan edo soinu-artearen hastapenetan aktiboki hartu zuen parte.

AZAROAK **18** (ostirala)

Kontzertuak

**19:00** Z aretoa

### RAS

Tolosan sortu zenetik bi hamarkada pasa badira ere, grindcore talde honek muturreko musika estilo honen erreferentzietako bat izaten jarraitzen du bai Euskal Herriko eszenan, baita Estatu mailan ere. Talde honen soinuak generoaren oinarri klasikoak jarraitzen ditu, alegia, ahots guturalak, gitarra doinu pisutsuak eta ezinezko abiaduran doazen bateriak nahasketa hilgarri eta politikoki kargatu baten alde.

### AGNES PÉ

Agnès Pek (Lleida, 1985) musika genero eta estiloek ezarritako mugen gainetik, soinuarekin egiten du lan. Umorea, jarrera eta modu pertsonalean birkonposatzen dituen soinuzko elementuekiko jakinmin amaiezina dira bere lanaren ezaugarri nagusienak. Fidelitate ugariko milaka erreferentziaz osaturiko collage kate erraldoien bidez jositako soinu kateak osatzen ditu. Ezohikoak erakartzen du. Etiketa gutxienekoa da.

AZAROAK **19** (larunbata)

Hitzaldia

### MUSIKA ETA ABIADURA

*Miguel Álvarez Fernández*

**19:00 ES**

Z aretoa

Musika eta abiaduraren harremanak sortu dituen hainbat efektu eta bitxikeria aztertuko dira, musika klasikoa, pop kultura eta abangoardien errepertorioa arakatuz eta zineman eragina izan duten soinuei ere erreparatuz.

Zinema maratoia

### "AGUR DENBORARI" ZINEMA ETA ABIADURA

**00:00**

Z aretoa

Ingelesez *flicker* hitza erabiltzen da begian flash efektua eragiten duen edonolako argizko fenomenoa izendatzeko. Flickering izenarekin ezagutzen dire film hauek oinarriz abiadura haundian eta matematikoki antolatutako kolorez osatuta daude, bestelako irudi errepresentatiborik gabe. Irudiaren muturreko biluztasun horrek zinemaren oinarrietara eramaten du gure begirada, zinemaren magiaren DNAra, gure begiradaren iruzurrera. Bestetik, baina zinemaren egitura erakuzte horretan, kameraren mugimendua murriztuz zinemaren denbora neurriz kanpo zabaltzen duen zinea legoke.

## ENTZUMENAREN BEHATOKIA

Instalazio, eskuhartze, topaketa eta egonaldiz osatutako proiektu honek arreta egiten die soinu-paisaian kokatutako errealitateei, eta azalerazi egiten dituzte eragiten diguten hainbat entzute-arazo. Entzumen-behatokiarentzat, lengoaia (hor baitago sonoritate nagusia guretzat) ez da komunikazio-tresna bat, bizitzeko modua baizik.

DSS2016EUrekin lankidetzan.

URRIAK **14** (ostirala)

Aurkezpena

### ENTZUMENAREN BEHATOKIA

**Ikerketa proiektuaren emaitzen aurkezpena.**

***José Luis Espejo***

**19:30**

Lantegia

2016ko urtarrila eta iraila bitartean Donostia hiriko 18 auzoetan egindako elkarrizketa sail batekin osatutako *Entzumenaren behatokia* izeneko ikerketa-proiektuaren ondorioak aurkeztuko ditu José Luis Espejok. Gure hirian espazio akustikoaren pertzepzioaz eta bizikidetzaz dagoen informazioa lehen eskutik jasotzea izan da proiektuaren helburua.

# HIRIA ETA BESTELAKO POLITIKAK

AZAROAK **2 > 5** (asteartea > larunbata)
Lantegia + aurkezpenak

## ERAKUNDEA EMANTZIPATUA: TABAKALERA ERRESISTENTZIA GUNE GISA

*Miguel Mesa del Castillo*
**10:00 ES**
Izen-ematea aldez aurretik.
Lantegia

Emantzipa al daiteke eraikin bat? Posible al da erresistentzia erakunde batean kokatzea? Arkitektura, ordena espazialari lotu izan zaio historian zehar, gizartearen lotura, hierarkizazio, zedarriztapen eta egonkortzeko ideiei zehazkiago esateko. Interpretazio horrek erresistentziako dinamiketan murgildua dagoen arkitektura bat aldarrikatzeko duen legitimazioa aztertzen saiatuko da tailer hau, aztergai gisa Tabakalerako eraikina bera hartuz.

AZAROAK **28 > 29**
Hitzaldiak, proiekzioak, lantegiak

## ARKITEKTURA: FILM MINTZAIRAK. EUROPA HARTUA.

*Arkitektura: Film Mintzairak* (AFM) hitzaldiz, tailerrez eta proiekzioz osatutako urte osoko zikloa da, eta gure garai honetako kategoria nagusi baten baitan (hiriaren baitan, hain zuzen ere) ikertzea da bere asmoa.

Filmen emanaldiak eta tailerren eskaintza txandakatzen dituen formatu batetik abiatuz, programa honek topaketa eta elkarraldi sail bat ahalbidetzen ditu bertako nahiz nazioarteko egile ugarirekin, leku edo ikuspegi oso desberdinetatik, hirira, hirigintzako politiketara eta lurraldearen azterketa geografikora gogoeta moduko hurbilketa bat sortzeko saio moduan.

Cristina Enearekin eta DSS2016EUrekin lankidetzan.

AZAROAK **8** (asteartea)

Aurkezpena

## TXATAR AROAZ: ALEXANDER KLUGEREN PENTSAERA ETA JARDUNBIDE JAUZILARIEN HARIRA.

*Elena Martínez Rubio.*
**19:00 EU** Z aretoa

Proiekzioa

***El Capital*** (Nachrichten aus der ideologischen Antike - Marx/Eisenstein/ Das Kapital), Alexander Kluge, Alemania, 2008, 570'.
**20:00** Z aretoa

*Laburpena:* Sergei Eisensteinek Karl Marx-en *Kapitala* filmatzeko izan zuen amaitu gabeko proiektu hura berreraikitzen saiatzen da Alexander Kluge ia bederatzi orduz, 1927. urtean James Joyce-rekin harreman sutsu bezain laburra izan ondoren. Eta horrez gain, Marxek gure garaiotan duen indarra ulertzen ere saiatzen da, zinema berriro ere baliabide kritikoa eta ezagutzazko bitartekoa bezala hartzeko.

AZAROAK **9** (asteazkena)
Topaketa
Aurkezpena: ***Elena Martínez Rubio***.
**10:00 - 14:00**
Izen-ematea: cristinaenea@donostia.org
Cristina Enea Fundazioa.

Aurkezpena

## ARTE POLITIKOA

Aurkezpena: ***Isaías Griñolo, Niño de Elche, Antonio Orihuela***.
**19:00 ES** Z aretoa

Kontzertuak / Performanceak

***Los Flamencos: Cante tóxico nº III.***
**20:00** Z aretoa

*Kante toxikoak* 2012an jaio zen, Antonio Machadoren *Juan de Mairena* pertsonaiak asmatutako koplak egiteko makina haren maneran, neoliberalismoaren desmasiak kantatu, kontatu eta erakusteko. Demokrazia bahitu eta etorkizuna ukatzen dieten aberatsek, boteretsuek eta politikariek jazartutako hiritarren protesta eta minen aztarnak eta arrastoak jasotzen ditu *III. zk.ko Kante toxiko* honek. Gure egunotako kontakizun hibridoak, azken finean, mundu poetikoaren, flamenkoaren performance moduko praktikaren, diskurtso kritikoaren eta ikus-entzunezko ekoizpenaren artean jirabiraka dabiltzan collage baten gisakoak, jendearen sufrimenduarekin eta sufrimendu horrexen beraren gainean eraikitako eszenategi sozial berri hau erakusteko.

AZAROAK **10** (osteguna)
Topaketa
Topaketa ***Isaías Griñolo, Niño de Elche eta Antonio Orihuela.***
**10:00 - 14:00 ES**
Izen-ematea: cristinaenea@donostia.org
Cristina Enea Fundazioa.

Aurkezpena

## TURISMOGRAFIAK / BARTZELONA - LISBOA / KULTUR HIRIBURUAK

*Andrés Antebi eta Daniel Malet*
**19:00 ES** Z aretoa

Proiekzioa

***La piel quemada***, Josep Maria Forn, 1967, Espainia, 110.
**20:00** Z aretoa

*Laburpena:* Espainiako eskualderik deprimitu eta atzeratuenetatik eskualderik aberats eta garatuenetaraino izandako migrazio masiboaren arazoari buruzko kontakizuna. Costa Bravako herrixka batean, zurgin batek bere lanaldiari ekiten dio. Eta aldi berean, Andaluziako herritxo batean, bere emaztea eta bi seme-alabak bidaian hasten dira harekin elkartzeko. Bakarrik egon den aldian, ordea, gizonak abentura bat izan du turista belgikar batekin, eta horrek imajina ere ezin zezakeen mundu bat iradoki eta erakutsarazi dio.

AZAROAK **11** (ostirala)
Topaketa
Topaketa ***Andrés Antebi eta Daniel Malet-ekin.***
**10:00 - 14:00 ES**
Izen-ematea: cristinaenea@donostia.org
Fundación Cristina Enea.

AZAROAK **28** (Astelehena)
Aurkezpena

## DEMOKRAZIA PRESENTISTA. Europako beste demokrazia horren ebaluazio bat

*Isabell Lorey.*
**19:00 ES/GER** Z Aretoa

Proiekzioa

***Haremakono,*** Abderrahmane Sissako, Mauritania, 2002. 95'.
**20:00** Z aretoa
*Sinopsia:* Europan gaur egun demokraziaren balioak beren etsaien aurkako gerretan defendatzen dira eta horiek Estatua sendotzea dute helburu. Demokrazia liberalak hustu

egin du, edukiz eta formaz, bere burua legitimatzeko balio ez duen edozein ideia. Baina formarik ez izate horrek gobernu autoritarioa erakusten du, gizarte larrialdi eta segurtasunik ezeko egoerari erantzuten diona.

AZAROAK **29** (asteartea)
Topaketa
Topaketa *Isabell Lorey*
**10:00 - 13:00**
Izen-ematea: cristinaenea@donostia.org
Cristina Enea Fundazioa.

## SISTER OF ANOTHER MAMA

URRIAK **1** (larunbata)
Performancea + argitalpena
**CORNERS OF EUROPE**
***Mila Pavicevic, Joseba Irazoki, SIMKA – Simon Hägglblom, Karin Lind***
**19:00** Nestor Basterretxea plaza

Aldi baterako gune editorial batean parte-hartzaileen istorio txikiak berreskuratzen dira argitalpen artistiko eta ikuskizun batean islatuz.
DSS216EUren proiektua.

## LAPUBLIKA

URRIAK **28** (ostirala)
Zuzeneko irratsaioa
**RADIO SYMPOSIUM LAPUBLIKA**
+ Info eta sarreren salmenta: www.lapublika.org
Patioa, Z aretoa eta eraikineko leku desberdinetan.

2015eko edizioa eta gero, *LaPublika*, nazioarteko irrati symposiumean bilakatuko da urriaren bukaeran. Zuzenean, jendaurrean, eta streaming-aren bidez hedatuko den saioa. 15 orduko programazioa, jendaurrean, kontzertuekin, performancekin, soinu-instalazioekin, esku-hartzeak hirian eta nazioarteko konexioak.

*LaPublika* proiektuan hainbat eragilek hartzen dute parte: consonnik zuzendu eta kudeatzen du eta DSS2016EU eta Tabakalerak ekoizten dute, UPV/EHUko Arte Ederretako Fakultatearekin, Azkuna Zentroa, Filmin eta Dabadabarekin elkarlanean garatu da, eta laguntza jasotzen du Hotel Silken Amara Plaza, Bilbao Ekintza, EHUKultura (Unibertsitate eta Zabalkuntza Zuzendaritza Bizkaia, UPV/EHU), Bizkaiko Foru Aldundia, Eitb, Casares Irratia, 97 FM Irratia, Radio Euskadi, Radio Vallekas, Acción Cultural Española (AC/E), Eusko Jaurlaritza (Fabricas de la Creación) eta TEA FM irrati eskolaren eskutik.

### EGUNEKO PROGRAMA

Elkarrizketak
***Rosalyn Deutsche**, **Jaime Iregu**-rekin elkarrizketan*
***Mutamassik, Michelle Teran** eta **Elvira Dyangani Ose-ren** hizketaldia*
***What, How & for Whom/WHW Daniel G. Andújar**-ekin elkarrizketan. **El Niño de Elche, Belén Gopegui**-rekin elkarrizketan*
**10:00 - 13:00**
Tabakalera

Esku-hartze artistikoak, performanceak eta kontzertuak:
***Sra. Polaroiska, Rosa Casado eta Mike Brookes, Daniel G. Andújar, Okela, Sangre Fucsia, PCAP / Akbild Vienna, Oier Iruretagoiena, Societat Doctor Alonso eta Moaré Danza*, Mugatxoan, grupo de investigación Orea* eta Aziza Brahim.***
**10:00 - 13:00**
Tabakalera

***Alicia San Juan**-ek zuzendua.*
***Alberto de la Hoz** irrati edizioan.*

Sarrera librea duten ekintzak.

### GAUEKO PROGRAMA

Kontzertuak
***Los Torreznos: "La realidad" (2016) haien azkenengo lana aurkezten dute, Mutamassik eta Tremenda Jauríaren***
**21:00**
Dabadaba, Mundaitz Kalea, 8, 20012 Donostia.

## SOUND CINEMA - CITYSCAPES

ABENDUAK **3** (larunbata)
Instalazioa
**18:00 – Wrocław**
**19:30 - Basque Cities Sound Portrait**

ABENDUAK **4** (igandea)
Instalazioa
**18:00 - PICTURES OF WARSAW**
**19:30 - CITYSCAPE KRAKÓW**

Musica Electronica Nova jaialdiak, 2016ko maiatzean, Wroclaw hirian aurkeztutako *Sound Cinema* edo Soinu-Zinema egitasmoa jarri zuen martxan. Europako musikagile ezberdinei hiri eta herrialde anitzen soinu-irudiak sortzeko gonbita eginaz, oraingo honetan, poloniar eta euskal hirien erretratu elektroakustikoei so egiteko aukera izango dugu Tabakaleran.

## FEMINISTALDIA

ABENDUAK **14 > 17**
(asteazkena>larunbata)
**FEMINISTALDIA 2016 - #PLAZA**
Topaketa
**Plazandreok antolatuta.**
***Konfirmatutako gonbidatuak: Onintza Enbeita, Silvia Federici, Jule Goikoetxea eta Maialen Lujanbio.***

Feministaldia Plazandreokek bultzatutako kultura feminista jaialdia da. Bere XI. edizioan #Plaza hitza abiapuntu hartuz, topagune bat sortu eta kultura feminista publiko egin eta plazaratzeko helburua du.






# HIRIKI-LABS

**HIRIKILABS. KULTURA DIGITALA ETA TEKNOLOGIA.**
Tabakalerak eta Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuak elkarlanean sorturiko proiektua.

Aurkibidea


**HIRIKIKAS**
· TECNO LABS LANTEGIAK
· NATURA GENERATIBOAK
**HIRIKILABS PLAZA**
**JOLABS**
· DO IT IN FAMILY
· LANTEGIAK
**TOPAKETAK**
· SOFTWAREA ETA TEKNOLOGIA LIBREA
· EGINZALEAK!

# HIRIKIKAS

URRIAK **5** (asteazkena)
Lantegia
## HIRIKIKAS: FABRIKAZIO DIGITALERA HASTAPENA: 3D INPRIMAKETA
**17:00 - 20:00 ES**
Izen-ematea aldez aurretik.
Hirikilabs

**3D inprimaketa**, hiru dimentsioko objektuak fabrikatzean datza. Ordenagailuak sortutako modelo digitaletik abiatuta, geruzaz geruza, materiala pilatuz sortzen da. Ikastaroan, Hardware librean oinarritutako hiru dimentsioko inprimagailuen maneiua eta programazioa ikasiko ditugu.

## ZIKLOA: NATURA GENERATIBOAK
Ziklo honen baitan zenbait lantegi eta prozesu martxan jarriko ditugu programazio parametriko eta generatiboa erabilita fabrikazio eta sorkuntza digitala lantzeko. Honetarako naturaren jokaeran inspiratuko gara, hots, Biomimetikan.

URRIAK **4, 11, 18, 25**
AZAROAK **22, 29** (asteartea)
Lantegia
## ALTZARIEN DISEINU IREKIA: MATERIAL ETA FORMEN ESPERIMENTAZIOA
*Arquimaña*
**17:00 – 20:00 ES**
Izen-ematea aldez aurretik.
Hirikilabs

Hirikilabsen irekierarekin 2013ko udan eta Tabakalerako eraikin berrian sartzearekin batera egindako altzarien diseinu ireki prozesuaren jarraipen moduan, aurten ere diseinu prozesu hau berreskuratuko dugu, eraikineko zona publikoetan jartzeko altzariak diseinatzeko helburuarekin.

URRIAK **19, 26** (asteazkena)
Lantegia
## NATURA ALGORITMIKOA
*Jaime de los Ríos*
**17:00 – 20:00 ES**
Izen-ematea aldez aurretik.
Hirikilabs

VVVV programazio lengoaia bisualean sorturiko aplikazio parametriko ezberdinak erabiliaz, naturan ematen diren ohiko ekuazioen fundamentuak aztertuko ditugu: partikula sistemak, patroiak, fraktalak, talde jokaerak, eraikitze generatibo voroidala... argia edo soinua bezalako kanpo elementuekin nahastuz 2D eta 3Dan inprimatzeko asmoarekin.

URRIAK **29** (larunbata)
Lantegia
## MAPATHON: MISSING MAPS
*Missing Maps, Médicos Sin Fronteras*
**17:00 – 21:00 ES**
Hirikilabs

*Missing Maps* garapenean dauden munduko eremu ahulenetan leku ezberdinak kartografiatzea helburu duen proiektu ireki eta kolaboratiboa da. Lekuan lekuko eta nazioarteko gobernuz kanpoko erakundeen, koperanteen eta bertakoen lana errazteko helburuarekin, mapa eta datuak erabiliaz, bertako arazoei hobe erantzuteko aukera ahalbidetu nahi du ekimen honek.

AZAROAK **15, 16** (asteartea, asteazkena)
Lantegia
## DISEINU PARAMETRIKOA ETA FABRIKAZIOA PAPEREAN VVVV BIDEZ
*Arístides García*
**17:00 – 20:00 ES**
Izen-ematea aldez aurretik.
Hirikilabs

Bi saioko lantegi hau arkitektura eta diseinu industrialean onarritutako tresnak garatzera bideratua dago, helburua hiru dimentsiotako paperezko pieza modularrak sortzea izanik. Lantegia patroi geometrikoan, arkitekturan, diseinuan, eszenografian edo 3D mapping-an interesa duen orori zuzendua dago.

AZAROAK **8, 9, 23** (asteartea, asteazkena)
Lantegia
## DISEINU SORTZAILEA ETA NATURAK SORTUTAKO PATROIEN INGURUKO LANTEGI ESPERIMENTALA
*Maria Mallo*
**17:00 – 20:00 ES**
Izen-ematea aldez aurretik.
Hirikilabs

Lantegi honek materialen esperimen-tazioa, lan egiteko modu kolaboratiboak eta ekintza bidezko ikasketa sustatzea ditu helburu. Diseinu generatiboa, fabrikazio digitala, naturak sortutako patroiak, geometria konplexuak, estruktura erreaktiboak eta erabiltzaileen arteko hartuemanak osatuko dute lantegiaren gai orokorra. Taldearen helburu konkretuak lehen bi egunetan zehaztuko dira partaideek landu nahi dutenaren eta euren jakin-minaren arabera. Lan egiteko modua, fabrikazio digitala erabilita prototipoak sortzen joatea izango da, ohikoak diren materialez gain (plastiko eta egurrak, orohar), emaitza moldagarriagoak ahalbideratzen dituzten beste batzuk erabiliaz, latexa edo silikona, esaterako. Azken emaitza irekia izango den arren, eredu esprimentaletatik produktuen diseinua, arkitektura edo instalazioak sortzeko aplikazioak lor daitezke.



*Natura algoritmikoa*

# HIRIKILABS PLAZA

URRIA, AZAROA, ABENDUA (ostegunero)
Topaketa
**HIRIKILABS PLAZA 6.**
**Deialdiko proiektuak garatzeko saioak**
**16.00 – 20.00**
Hirikilabs

*Hirikilabs-Plaza* pertsonen, kolektiboen eta inguruneko praktika komunitateen artean elkarlanean proiektu irekiak garatu eta topatzeko lekua da. Beste pertsonekin biltzeko, ikertzeko, partekatzeko eta Hirikilabs laborategiko tresnak eta baliabideak lantegi ireki moduan erabiltzeko uneak dira saiok. Helburua, jendearen sormen ideiak garatzea da, D.I.Y.-etik (zuk zeuk egin ezazu) D.I.W.O.-ra (besteekin egin ezazu) bihurtuz.

# JOLABS

URRIAK **1, 8, 15, 22, 29** (larunbata)
AZAROAK **5, 12, 19, 26** (larunbata)
ABENDUAK **3, 10** (larunbata)
Lantegia
**JOLABS. DO IT IN FAMILY**
**10:00 - 13:00 EU**
Izen-ematea aldez aurretik.
Hirikilabs

Larunbateroko *Jolabs* saioak hiru hilabeteko prozesu bilakatuko dira eta lantegi estrukturan lan egitetik, epe luzeagoko proiektuetan egingo da lan. Haur zein gurasoek hartuko dute parte prozesu honetan, taldean egingo da lan eta denon artean erabakiko ditugu garatuko ditugun proiektuak. Larunbatero lan-formatu libre batean lan egingo dugu, sormena eta ikasketa kooperatiboa garatuz.

AZAROAK **5** (larunbata)
Lantegia
**FORMA ERAGINKORREKO EREDUEN SORKUNTZA**
*Maria Mallo*
**10:00 – 13:00 ES**
Adina: 7-12 urte.
Izen-ematea aldez aurretik.
Hirikilabs

Naturako formak erabiliz marrazkiak egiteko erabiltzen diren ereduak egingo ditugu, ondoren angulu zuzenik gabe forma naturalak dituzten hiri, auto eta objektu arruntak nolakoak izango liratekeen imajinatzeko.

# TOPAKETAK

AZAROAK **17** (osteguna)
Topaketa
**BURUJABETZA TEKNOLOGIKOAREN BIDEAN - SOFTWARE ETA TEKNOLOGIA LIBREAREN TOPAKETAK**
**09:30 - 20:00**
Hirikilabs

Topaketa honek teknologia libreen garrantzia nabarmenduko duten eztabaidarako eta ekintzarako espazio bat martxan jartzea du helburu. Besteen artean, honako gai hauek landuko dira: datu libreak, estandar irekiak, hardware librea, azpiegitura libreak...

Topaketa honen eragileak Talaios eta UEU dira.

ABENDUAK **13 > 17** (asteartea > larunbata)
Topaketa
**EGINZALEAK! TEKNOLOGIA ETA FABRIKAZIO DIGITALAREN 4. ASTEA**

Ikasteko eta partekatzeko aste bat zeina irekiak eta partehartzaileak diren hiritar proiektuak bistaratzeko eta ezagutzeko azoka batekin bukatuko den.

ABENDUAK **13 > 16** (asteartea > ostirala)
**EGINZALEAK! MODA ETA TEKNOLOGIA LANTEGIAK**
**17:00 - 20:00**
Izen-ematea aldez aurretik.

ABENDUAK **11** (larunbata)
**AZOKA**
**10:00-14:00 / 16:00-20:00**
Proiektuen aurkezpena:
www.tabakalera.eu



*Eginzaleak!#3*




# HEZKUN-TZA

Aurkibidea

**KAMALEOIAK GARA!**
· PROGRAMA
· ERAKUSKETA
· NONDIK DATOR ZURE GOSARIA?
· ZINEMAN
**HIRIA HACKEATU**
**0-6 GUNEA**
**ZOOM. BIDEO LABORATEGIA**
**ESTRATEGIA FEMINISTAK HEZKUNTZAN. FEMINISTALDIA**
**HEZKUNTZA KOMUNITATEA**
· IBILBIDE-TAILERRAK
· ELKAR-EKIN, EPE ERTAINEKO PROGRAMA
· ESKOLA ALDIRIAK
**IRAKASLEEKIN PROGRAMA**

# KAMALEOIAK GARA!

*Kamaleoiak gara!* Jarduera programa bat da haurrek eta helduek elkarrekin goza dezaten arte garaikidearen inguruan. Tabakalera elkarrekin bizi, jakintzak partekatu eta belaunaldien arteko komunitate batean ikasi nahi duten amak seme-alabekin, aitak ilobekin, bilobak amonekin...

URRIAK **8**, AZAROAK **12** (larunbata)
**KAMALEOIAK GARA! PROGRAMA! 0-99**
**17:00**
Izen-ematea aldez aurretik.
Z aretoa

**Urriak 8**
Zirkoa
**IRAKURRIZ**
*Shakti Olaizola*

Irakurtzen ari den neska baten mundu bitxian murgiltzen gara. Pasarte desberdinak dituen istorio batera eramaten gaitu, oroimenez, aurkikuntzaz, isladaz, ametsez... betetakoa. Bidean aurkitzen dituen egoera eta objetuen bitartez bere burua aurkitzen du eta bere istorioak gurekin partekatzen ditu.

Ekintzak eta egunerokotasuneko objetuak, joko, erronka eta poztasun bihurtuko dira mugimendua, ahotsa, orekak, dantza eta kontorsioarekin batera. Nola bukatuko da bidaia hau?

**Azaroak 12**
Antzerkia
**KUBIK**
*Cía. Teatro Paraíso*

Ingurugiroa ulertzeko harekin fisikoki esperimentatzen duten ume jokoetan oinarrituta dago ikuskizuna. Eskuragarri dituzten objektuen manipulazioaren bitartez, pentsamendua eraiki eta horrela, irudimenaren atea irekiko dute. *Kubik*-en, bi antzezleek eraikuntza-joko bat manipulatzen dute, pilatu, transformatu eta mugitu egiten dena eta esploratzeko toki berriak sortzen dituena. Mugimenduan dagoen egitura da, zeinetan bolumenek eta formek pantaila txiki mugikorrak sortuko dituzten, irudiak agerraraziz.

URRIAK **23**, AZAROAK **27**, ABENDUAK **18** (larunbata)
Lantegia
**KAMALEOIAK GARA! ERAKUSKETA 5-99**
**11:00 - 12:30 EU**
Izen-ematea aldez aurretik.
Erakusketa aretoa

Lantegi hauen bidez jolastea, ibiltzea, parte hartzea, eta era dinamikoan erakusketa aretoetan dauden arte piezak, objektuak eta diskurtsoak aktibatzea proposatzen dugu.

URRIAK **1**, AZAROAK **19** (larunbata)
Lantegia
**KAMALEOIAK GARA! NONDIK DATOR TXOKOLATEA?**
**11:00 - 12:30 EU**
Izen-ematea aldez aurretik.

*Bizigarriak: zirkulazioa eta euforia* programari lotuta, lantegi honetan elikagaien jatorria ezagutu eta haien kontsumo, banaketa edo ekoizpen moldeen gainean gogoeta egitea proposatzen dugu. Landaguneak esploratuko ditugu, esperimentatu egingo dugu landare, fruta eta haziekin, edo berezko errezeta berriak asmatuz sukaldatuko dugu. Hori guztia erakusketan topatuko ditugun arte prozesu eta piezetatik abiatuta.

**Urriak 1.**
**NONDIK DATOR TXOKOLATEA?**

Nondik dator zure gosaria? Zenbat kilometro ibili ditu zure mahairaino iritsi arte? Zer historia gordetzen du barruan? Hezkuntza alorretik bat egiten dugu *Bizigarriak: zirkulazioa eta euforia* proiektuarekin, normalean kontsumitzen ditugun elikagaien inguruan arakatzeko eta haien jatorrian, ekoizpen prozesuan eta balizko eraldaketetan sakontzeko.

**Azaroak 19**
**GOMINOLAK!**

Nola egiten dira gominolak eta zeintzuk dira bere osagaiak? Etxean gominolak egiteko gai izango ginateke? Eta azukrerik gabe eta fruta ekologikoarekin egingo bagenitu? Lantegi honetan gozo osasuntsuak sukaldatu, prestatu eta probatuz, gozatzera gonbidatzen zaituztegu.

AZAROAK **6**, ABENDUAK **11** (larunbata)
Lantegia
**KAMALEOIAK GARA! ZINEMAN 5-99**
***Aitor Gametxorekin.***
**Proiekzioa 12:00**
**Lantegia 12:45 EU**
Izen-ematea aldez aurretik.

Hezkuntza eta ikus-entzunezko narratibak gure lan ildoarekin sintonian, datorren ikasturtean *Kamaleoiak Gara! ZINEMAN* programa egonkortzea proposatzen dugu belaunaldien arteko topaketak ahalbidetzeko helburuz ikus-entzunezko esperimentalekin. Zinemak potentzial hezitzailea duelakoan, film laburren saio bat Tabakalerako zinema aretoan, eta ondoren lantegi bat egitea proposatzen dugu. Bertan ikusitakotik eratorritako gai eta tekniketatik abiatuta lan egingo dugu.




***ELKAR-EKIN***

URRIAK **28**, AZAROAK **25** (ostirala)
ABENDUAK **27 > 30** (asteartea > ostirala)
Lantaldea

## HIRIA HACKEATU
### Gazteak, hiria eta maker-ak

Urriak 28, Azaroak 25 **17:00 - 19:00 EU**
Abenduak 27-30 **10:00 - 14:00**
Adina: 12 -17 urte.
Izen-ematea aldez aurretik.

Hiria eta hiriko espazioak gazteen ikuspegitik begiratu eta ondoren espazio hauek gazteen beharretara nola moldatu aztertzea da *Hiria Hackeatu-ren* helburua.

Opor garaian egindako lantegi trinkoez gain, ikasturte honetan hilero azkeneko ostiralean bilduko gara, taldeko premietatik sortzen diren jarduerak aurrera eramateko. Horrela, aurtengo abenduko lantegi trinkoetan landuko diren gai konkretuak lantaldeak erabakiko ditu datozen ostiraletako saioetan.

Lantaldea

## 0-6 GUNEA

0 eta 6 urte bitarteko haur eta familiekin proiektu bat garatzeko proposamena da. Espazio hau modu kolektiboan lantzen da eta bertan ko-ikaskuntza praktikak, lantegiak eta praktika artistiko garaikideekin erlazionaturiko prozesuak garatuko dira.

Maiatzean hasi zen diseinu fasea eta datorren hilabeteetan, horrekin jarraitzeaz gain, espazioaren eraikuntzari ekingo diogu. Horretarako 0-6 Guneko hainbat elementu sortzeko lantegi praktikoak burutuko ditugu Hirikilabsen.

URRIAK **28**, AZAROAK **4** (ostirala)
Lantegia

### 0-6 GUNEA ERAIKIZ: ALTZARI BIGUNAK

*Oihana Legorburu. Haria Slow Fashion*
**17:30 - 19:30**
Izen-ematea aldez aurretik.
Hirikilabs

Altzari bigunak eta goxoak ezinbestekoak dira 0-6 urte bitarteko haurrekin egoteko: kuxinak, alfonbrak puffak... Lantegi praktiko hauetan zenbait elementu eraikiko ditugu, makinaz josten ikasiko dugu eta patroigintzarekin lotutako hainbat kontzeptu ikasiko ditugu.

AZAROAK **30**, ABENDUAK **1**
(asteazkena > osteguna)
Lantegia

### 0-6 GUNEA ERAIKIZ: INSTALAZIO SENTSORIALA

*Paola Guimerans*
**17:30 - 19:30**
Hirikilabs

Ukimena, entzumena, ikusmena... zentzumenak garatzeko prozesuan garrantzitsuak dira haurrek jasotzen dituzten estimuluak. 0-6 gunerako instalazio interaktibo bat eraikiko dugu, material desberdinak, e-ehunak, argia, soinua etab. jasoko dituena, haurrek sentsore desberdinen bidez elementu jostagarri eta interaktibo bat izan dezaten.

2016 > 2017
Lantegia-Lantaldea

## ZOOM. BIDEO LABORATEGIA

Adina:16-21 urte
Izen-ematea aldez aurretik.

16 eta 21 urte artean dituzu? Zinema eta ikus-entzunezkoak interesatzen zaizkizu? Zenbat aldiz atzeman duzu zeure burua filmetako elkarrizketak eta eszenak errepikatzen? Interes horiek zure adineko beste batzuekin partekatzeko gogoa duzu?

Ikus-entzunezkoetan interesatuta dauden 16 eta 21 urte arteko gazteek osatzen dute *Zoom* taldea. Gure ustez, adin gakoa da hori, orduan eraiki eta bistarazten baitira neurri handi batean bideoaren, argazkigintzaren edo soinuaren alorretik iritsitako buru-irudikapen moldeak. Horrela, gazteen interes eta beharretatik abiatuz, pasaden 2015/2016 ikasturtean zineman programatu dugu, Antonio Macarro edo Jaume Ferrete bezalako artistekin lantegietan parte hartu dugu, trukeak eta bidaiak egin ditugu CA2Mko *Equipo SUB21* gazte taldearekin, ikus-entzunezko materialak ikusi eta sortu ditugu...barre egin eta taldea egin dugu.

2016/2017 ikasturteari begira deialdia ireki dugu taldera elkartzeko! Urriaren 22an egingo dugun lantegia izango da elkartzeko lehen eguna, bertan elkar aurkeztu eta hobeto ezagutzeko aukera izango dugularik.

ABENDUAK **12 > 13** (Astelehena > asteartea)
Lantegia

## ESTRATEGIA FEMINISTAK HEZKUNTZAN. FEMINISTALDIA

2014ko eta 2015eko edizioetan bezala, Feministaldia 2016en parte hartuko dugu abenduan, pedagogia feministen gaineko ildoari jarraipena emanez. 2016ko uztailean egin zen irakasleekin programa (hezkuntzan estrategia feministak bilatzean zentratua) hartuko dugu marko gisa. Programa horrek piztu duen interesetik abiatuta, irakasleek osatutako talde bat sendotzea proposatzen dugu, feminismoez eta pedagogiaz eztabaidatu, gogoeta egin eta ikertzeko.

## HEZKUNTZA KOMUNITATEA

Hezkuntza zentroei, elkarteei eta helduen heziketa taldeei zuzendutako programak.

2016/2017 IKASTURTEA
(asteazkena > ostirala)
Taldentzat lantegia

### IBILBIDE-TAILERRAK

**10:00 -14:00 / 16:00 - 18:00**
Iraupena: 2 ordu. Erreserba egiterakoan zehatuko da ordutegia.
Izen-ematea aldez aurretik.

*Hezkuntza komunitateei eta elkarteei zuzenduak.*

*Ibilbide tailerrek* Tabakalerara lehen hurbiltze bat ahalbidetzen dute. Saio dinamiko hauetan taldeen behar eta interesetara moldatzen gara eta haien parte hartze aktiboa bilatzen dugu.

## TABAKALERA ESPLORATUZ!

*Lehen hezkuntzako taldeei zuzendutako lantegia.*

Eraikineko zenbait gunetatik egindako ibilbide batetik abiatuta, espazio publikoaren erabileran eta pertzepzioan sakontzen da, baita eguneroko tokiak bizi ditugun eta bertan jokatzen dugun moldeetan ere. Zenbait dinamika eta jolasen bidez, lantegi honek Tabakalerako guneak eraldatzea eta haien erabilera kolektiboaz hausnartzea proposatzen du.

## ORGANISMO BIZIAK

*Lehen eta bigarren hezkuntzako eta batxilergo taldeei eta elkarteei zuzendua.*

*Organismo bizien agentzia* erakusketaren barruan sortu da. Nola zientzian hala artean, sareak eta sistemak artikulatzeko moldeak bezalako ideietatik abiatuta, performance dinamikekin, eskultura bizidunekin edo gaien plastizitatearekin lan egingo dugu.

## REC: ZINEMA ESPERIMENTALA

***Aitor Gametxorekin.***

*Bigarren hezkuntza eta batxilergoko taldeei zuzendutako zine lantegia.*

Tabakaleran dauden zine esperimentaleko funtsetatik abiatzea proposatzen dugu lantegi honetan. Hautatutako material batzuen ikusketatik abiatuta, ikus-entzunezkoak identitateak eraikitzeko dituen moldeen inguruan gogoeta egingo dugu eta hegemonikoak direnen ikusteko modu alternatiboak ezagutu eta proposatuko ditugu. Lantegiak parte praktikoa ere izango du.

*Lantegi hau 2016ko azaroa eta 2017ko martxoa bitartean garatuko da.*

## MAÑANA GOODBYE. ELKARREKIN LAN EGITEN DUEN EMAKUME TALDEA

*Elkarte eta helduei zuzendutako lantegia.*

Tabakalerako Sotoan kokatutako *Mañana Goodbye* ikus-entzunezko instalaziotik sortu da lantegia. Proiektu honetatik ateratako materialen bidez lana, oroimena edo historia bezalako nozioen inguruan gogoeta egitera eramango gaituzten dinamika eta jolas sorta bat gauzatuko dugu.

Taldentzat lantegia

## ELKAR-EKIN EPE ERTAINEKO PROGRAMA

*Donostialdeko hezkuntza zentroei eta elkarteei zuzendua.*

Ikasturte osoan zehar / Datak eta ordutegia: taldeko arduradunarekin adosten direnak.
Iraupena: 3-5 saio
(*Tabakalerako bisitaldiek 2 ordu iraungo dute; ikasgelako lana, berriz, talde bakoitzaren ordu premietara egokituko da).*

*Elkar-Ekin* hezkuntza talde desberdinekin batera diseinatu eta garatzen den epe ertaineko programa da.
Ez dago aldez aurretik gai espezifiko edo itxirik, taldearen behar partikularren eta Tabakaleraren programa kulturalaren artean loturak bilatzen dira. Hala, curriculuma, ikasgaiak edo interes zehatzak arte praktika eta hezkuntza metodologiarekin konbinatzen dira.

> URRIAK **21** (ostirala)

## ESKOLA ALDIRIAK

Deialdia

*Donostialdeko ikastetxeei zuzendua.*

Oinarriak eta izen-ematea: www.tabakalera.eu.

*Eskola aldiriak* eskolako, auzoko edo hiriko espazioetan artea eta hezkuntza uztartzen dituen proiektu kolaboratibo bat garatzeko urtero egiten den deialdia da. Lan moldeak birpentsatzeko eta hezkuntza komunitatea sendotuko duten ikasketa prozesuak abiarazteko aukera bat da. Epe luzeko aliantza eta, ikasketa prozesuak ahalbidetuko dituzten harreman iraunkorrak izateko dugun interesa islatzen du programa honek.

*+ Info: Hezkuntza programan edo webgunean.*

# IRAKASLEEKIN PROGRAMA

Programa honek irakasleen eta Tabakalerako hezkuntza taldearen artean jakintzak eta esperientziak partekatzeko zenbait topaketa barne hartuko ditu. Topaketa horiek elkarrekiko ikasketa prozesuak sortu, dauden premiak eta interesak ezagutu eta hezkuntza tresna irekiak ahalbidetzeko espazio moduan ulertzen ditugu. Horretarako, elkarrizketa esparru bat eskaintzen dugu hezkuntzaren eta kultura garaikidearen artean.

URRIAK **15** (larunbata)

Topaketa

## TOPAKETA 1: ESKOLA LABORATEGIA: GEURE ESPAZIOAK ELKARTZEN.

**09:30 - 17:00**

***Ttipi Studiorekin elkarlanean antolatuta. Gonbidatuak: Susana Gimber (Escola Dovella), Mercédes Álvarez (CA2M), Ttipi Studioa (Ane Abarrategi eta Maddi Texeiro), Josu Elortegi (San Nicolás Ikastola) eta Jakintza ikastola (zuzendaritza)***

Izen-ematea aldez aurretik.

*Hezkuntza, parte-hartzea, praktika artistikoa eta arkitektura arloetan interesa dutenei zuzendutako jardunaldia.*

Eskolaren espazio komunetan ematen ari diren praktika artistiko eta kolaboratiboen inguruan hausnartu eta kanpo eragile eta hezkuntza komunitateen arteko harremanak aztertzeko helburua dugu. Jardunaldi hauetan zehar zenbait proiektu ezagutuko ditugu eta esperientzia hoietatik abiatuz, ikuspegi eta pentsamendu kritikoak bideratuko ditugu.




# UBIK

## Tabakalerako sorkuntza liburutegia

Aurkibidea

**PENTSAMENDUA**
**IKUS-ENTZUNEZKOAK**
**SOINUA**
**AUTOEDIZIOA**
**BIDEO-JOKOAK**
**TEKNOLOGIA**
**ESPAZIOAK ETA ARKITEKTURA**
**BESTEAK**

Ubik ordutegia:

Asteartetik larunbatera: 10:00 - 14:00, 16:00 - 20:00
Igandea eta jaiegunak: 10:00 - 14:00

# PENTSAMENDUA

URRIAK **1**, AZAROAK **5**, ABENDUAK **3**
(hileko lehen larunbata)
Hileroko Topaketa

## SALTO. FAMILIA ELEKETAK

*Ainhoa Artxanko, Amaia Urzain*
**17:00 - 18:30 EU** / Adina: +6 urte.
Ubik, Lantegia

SALTO egiteko argibideak:
Begiak zabaldu.
Belarriak ireki.
Prestatu zaitez gauza berriak ikusi, entzun eta bizitzeko.
Zentzumen guztiak adi dituzu?
Indarra hartu..... eta SALTO!

Egiteko, esateko, entzuteko, sortzeko, beraz, pentsatzeko uneak partekatuko ditugu familian eguneroko gai ezberdinen inguruan. Ubik sorkuntza liburutegiak eskaintzen dizkigun baliabide guztiak esploratuz eta haur eta helduei zuzenduta, esperientzia berri ezberdinak biziko ditugu. Familiarteko haremanak sendotzeko espazioa ere bada Salto.
Saio bakoitza errepikaezina da. Ezin duzu galdu!

URRIAK **13**, AZAROAK **17**, ABENDUAK **15** (osteguna)
Aurkezpena

## KORAPILOAK. BIZIGARRIAK: ZIRKULAZIOA ETA EUFORIA

**18:30-19:30 EU + ES**
Ubik, Egongela

*Bizigarriak: zirkulazioa eta euforia* proiektuarekin lotuta, *Korapiloak* hausnarketa bultzatzen saiatzen den programa da bizigarriaren ideia ikuspegi botaniko, neuroplastiko, material eta estetiko batean hartuta. Oraingo honetan *Korapiloak* saioetara gonbidaturiko pertsonek Ubik-en katalogorako bost erosketa berri proposatuko dituzte eta aurkezpen saioetan elementu hauen bitartez egin duten ibilbidea -korapiloa- azalduko digute.

Urriak 13 -- *Jakoba Errekondo*
Azaroak 17 -- *Idoia Castillo Arbaiza*
Abenduak 15 -- *Koldo Salinas eta Sole Agirre*

URRIAK **29**, AZAROAK **26**, ABENDUAK **17** (hileko azken larunbata)
Topaketa

## OUTLINE. PENTSAMENDU KRITIKOA

*Martxel Mariskal*
**11:30 - 13:30 EU + ES** / Adina: +15 urte
Izen-ematea aldez aurretik.
Ubik, Egongela

“Gizaki posmodernoa dantza eskizofrenikoan dabil, sarritan jakitun ez bada ere, sarritan jakitun izan nahi ez badu ere: Zer da erreala? Non dago pribatutasuna? Non boterea? Nork definitzen ditu gure gustuak? Arriskuan al dago gure identitatea? Jasan genezake hainbeste konplexutasun? Hedabideez ze erabilpen egiten dugu, nola erabiltzen haiek gu? Zer gertatzen ari zaio gure adimenari? Ahultzen al doa gure kritika gaitasuna? Pobretzen ari gure hizkuntza maila? Untxi zuriari jarraitu behar genioke? Eskizofrenia eta nekea, baina irribarre erraldoiak. Salba dadila ahal duena! STOP”.

URRIA, AZAROA, ABENDUA
(ostiralero)
Topaketa

## XAKE MATE! MAHAI JOKOEN ARRATSALDEA

*Iñaki Vazquez*
**18:00-20:00 EU + ES**
Ubik, Lantegia

Astea amaitzeko modu hoberik ote? Ostiral arratsaldea mahai-jokoetan aritzeko unea da Ubiken.
Joko ezberdinetan aritzeko aukera izango dugu: arrazonamendu taktikoa edo estrategia lantzen dutenak batzuek; koordinazioa, esku abilezia eta memoria besteak, baita zorian oinarritzen direnak ere.
Dadoak, fitxak, kartak, rol-a edo xakea eta beste hainbat joko ere pasako dira mahaitik. Ez galdu zure txanda!

# IKUS-ENTZUNEZKOAK

URRIAK **15 eta 29**, AZAROAK **12 eta 26**
(larunbata)
Lantegia

## SELFI SELFIE. ZURE SELFIAK HOBETZEKO SAIOAK

*Niko Iturralde*
**17:30 - 19:30 EU + ES** / Adina: + 14 urte
Ubik, Lantegia

Mugikorra hartu, kamara bilatu, autoerretratu aukeran jarri, nere profil ederrena aukeratu eta click! Itzela! Sareetara igotzen dut denek ikus dezaten.

Selfieak egin eta sareetan parte hartu nahi baduzu, Ubiken elkartuko gara probak egin, trukuak partekatu eta argazki asko ikusteko. Megak ekarri, beharko dituzu eta!

URRIAK **21**, AZAROAK **18**, ABENDUAK **16** (hileko hirugarren ostirala)
Topaketa

## VIDEO KILLED THE RADIO STAR

*Itziar Orbegozo*
**17:00 - 19:00 EU + ES** / Adina: +16 urte
Izen-ematea aldez aurretik.
Ubik

MTV-k 1981 urtean lehenengo bideoklipa programatu zuenetik, abesti, sortzaile, zuzendari, teknika eta formatu ugari ikusi ahal izan ditugu. Gure bizitzaren momentu desberdinak berbizitu ditzakegu abestien inguruan egiten diren filma labur hauen bidez: klasikoak, garaikideak, txuri-beltzean, aitzindariak, analogikoak, digitalak, experimentalak, xumeak... Estilo guztiak har ditzakete ikus-entzunezko lan txiki hauek.

Bideoklipak gustatzen zaizkizu? Ikusi, gozatu, aztertu, eta esperimentatu nahi baduzu, hau da zure topalekua! Let's get rocked!

URRIAK **18**, AZAROAK **15**, ABENDUAK **20** (hileko hirugarren asteartea)
Topaketa

## PANTAILA ESPERIMENTALA

*Aitor Gametxo*
**18:30 - 20:00 EU + ES** / Adina: + 16 urte
Izen-ematea aldez aurretik.
Ubik, Pantaila esperimentala.

Zinema esperimentalak, praktika zinematografiko ugari barne hartzen ditu. Desbertintasunak desberdintasun, filma esperimetalek honako ezugarriak partekatzen dituzte: formaren goraipamena, zirkuito komertzialetatik aldentzea, entsegu kutsua eta narrazioaren deuseztapena.

*Pantaila Esperimentala* begirada pertsonal horien bilgune izateko eta hauek hiritarrei gerturatzeko helburuarekin sortu da. Zinema esperimentala zer den azaltzeaz gain, zinema esperimentala esperimentatzeko gorpuztua.

# SOINUA

URRIAK **8** eta **22**, AZAROAK **5 eta 19** (larunbata)

Lantegia

## DJ-A IZAN NAHI DUT!

*Las Marines DJ*

**17:30 - 19:30 EU + ES** / Adina: + 14 urte

Ubik, Lantegia

Beat, chop, jingle, LP, scratching... DJ-a izan nahi baduzu, hitz hauek eta beste asko ezagutuko dituzu lantegi honetan, diskak aukeratu, pistak nahastu eta efektuak sortuz.
Platerak sukaldetik kanpo!

# AUTOEDIZIOA

URRIAK **20** (osteguna)

Lantegia

## FANZINEMANIA!

*Manuel Valencia, 2000 Maníacos*

**18:00 - 19:30 ES**

Ubik, Autoedizio txokoa

Nola egin underground fanzine bat? Fantasia eta Beldur zinema dastatzen hasteko Manuel Valencia *2000 Maníacos* fanzinearen buruarekin masterclass-a antolatu dugu.
Fantasia eta Beldur zinema asteko Fanzine Gudan parte hartzeko Manuel Valenciak edizioaren inguruan aholku eta pistak emango dizkigu.
Fanzineroak eta fantasia eta beldur zinema zaleak, prestatu zaitezte borrokarako!

Fantasiazko eta Beldurrezko zinemaren astearekin elkarlanean antolatutako lantegia.

URRIAK **26**, AZAROAK **23**, ABENDUAK **28** (hileko azken asteazkena)

Topaketa

## ATLAS. AUTOEDIZIO TOPAKETA

**18:30 - 20:00 EU + ES**

Ubik, Autoedizio txokoa

Hileko azken asteazkenetako *Atlas* topaketetan, autoedizioaren inguruko esperientzia, ezagutza eta iritziak partekatzen ditugu. Autoedizioaren esparru ezberdinak sustatu eta ikustera ematea da asmoa: fanzine bildumak, autoedizioen diseinua, ilustrazioa....

Autoedizioaren mundura gerturatu nahi baduzu hau da zure aukera.

**Urria 26 -- 1960ko hamarkadako "sare sozialak".** ***Koldo Tapia***

1960. hamarkadan gizarte harremanetarako garatu zen sarearen ezaugarriak aztertuko ditugu *Atlas* saio honetan. Frankismoaren dotrina hedatu eta zaintzen zuten hedabideen pare, bide sasi-legalak eta ezkutuko arriskutsuak jarraituz, sare sozial oso bat eraiki zen, kasu askotan oso eraginkor izatea ere lortu zuena.

Garai hartako zenbait praktika egiten eta ikusten ahaleginduko gara oktabilak, kartelak, informazio orriak, eta antzekoen sortze-prozesua eta eragina nolakoa izan zen azalduz.

**Azaroa 23 -- Zines of the zone-rekin topaketa, argazkigintzako autoedizio lanen liburutegi mugikorra.** ***Zines of the zone.***

Azaroko *Atlas* saioan Zines of the zone-eko kideak izango ditugu gure artean. Alperkeria baztertuta, furgoneta hartu, erakusketetarako tramankulu berezia diseinatu eta errepidetara atera ziren fanzineak erakusteko road trip bat eginez. 2014ean hasi zen bira honetan hiri ugari bisitatu ostean, Donostiara iristen dira beraien proiektua eta bilduma erakusteko. Ezagutu nahi dituzu?

**Abendua 28 -- 2016 Fanzine II. Kultur hiriburu itxiera.** ***ANTespacio***

Urtea DSS2016EUrekin hasi genuen, baita bere fanzinea egin ere. Kultur hiriburutza amaituta, urtarrilean egin genuen argitalpen kolektiboa abiapuntu hartuko dugu urte amaierako fanzinea egiteko. Honek eragin dituen aldaketak, berrikuntzak eta ondorioak aztertu; gogoetak, sentsazioak, bizipenak... Zer ekarri digu 2016ak? Zer esan nahi duzu?

AZAROAK **22, 23, 24** (asteartea >osteguna)

Aurkezpena

## ZINES OF THE ZONE BILDUMAREN ERAKUSKETA

*Zines of the zone*

**10:00 - 14:00 / 16:00 - 20:00**

Ubik, Autoedizio txokoa

Bere proiektua *Atlas* saioan azaltzeaz gain, hiru egunetan zehar 2014 urteaz geroztik biltzen ari diren argazki autoedizioen bilduma izango dugu Ubiken. Bilduma eskuragarri egongo da publikazio berriak ezagutu nahi dituen ororentzat eta haren parte izateko aukera ere izango da.

*Argazki autoediziorik baduzu eta Zines of the zone bildumaren parte izan nahi baduzu, ekarri itzazu Atlas saiora (azaroak 23an) edota bidali izatzu postaz Ubikera 20a baino lehen (Att: Ubik, Zines of the zone. Andre Zigarrogileen plaza 1, 20012 Donostia-San Sebastián).*

ABENDUAK **7, 8, 9** (asteazkena > ostirala)

Lantegia

## ARTISTA LIBURUARI BURUZKO TOPAKETAK

*Milimbo*

EU + ES

Izen-ematea aldez aurretik.

Ubik, Autoedizio txokoa



DJ-A IZAN NAHI DUT!

Bigarren urtez Artista liburuari buruzko topaketan parte hartuko dugu arteliburu21, Koldo Mitxelena Kulturunea, San Telmo Museoa eta Arteko Taller-arekin batera.

Ubiken antolatutako lantegiak Milimbok bideratuko ditu. Valentziako estudio grafikoa eta argitaletxeak, irudien bitartez kontatzen ditu istorioak. Ubik-en liburu ilustratuak egiteko lantegiak eskainiko dizkigute haur, familia eta helduei zuzenduta.
Begi oso irekiekin irakurtzeko liburuak datoz!

**Abenduak 7**
17:30 - 19:00 Asteazkenetan Ubiken: Milimbo. 6-10 urte

**Abenduak 8**
11:00 - 13:00 Helduentzat lantegia. +18 urte

**Abenduak 9**
11:00 - 13:00 Helduentzat lantegia. +50 urte
17:30 - 19:00 Gazteentzat lantegia. 11-16 urte

## BIDEO-JOKOAK

URRIAK **11, 25**, AZAROAK **8, 22**, ABENDUAK **13, 27** (hileko bigarren eta laugarren asteartea)
Topaketa
### NIK ERE NAHI DUT!
**11:00 - 12:30 EU + ES** / Adina: +50 urte
Ubik, Bideo-jokoaren txokoa

Nork dio bideo-jokoak gazteen gauza direla? Jolastu, saiatu, frogatu eta ondo pasatzeko ez dago adinik. Zatoz bideo-jokoen mundua ezagutzera!

URRIAK **22** (larunbata)
Aurkezpena
### LARA SANCHEZ COTERÓN-EN BIDEO-JOKO AUKERAKETA
*Lara Sánchez Coterón*
**18:00 - 19:30 ES**
Ubik, Lantegia

Lara Sánchez Coterón, Arte eta Bideo-jokoetan aditua, gonbidatu dugu Ubikeko bilduman gehituko dugun bideo-joko aukeraketa bat egiteko. Zertan oinarritu da bere hautaketa? Zein dira derrigor ezagutu beharrezkoak? Frogatu nahi al dituzu?

## TEKNOLOGIA

URRIAK **4**, AZAROAK **8**, ABENDUAK **13**
(asteartea)
Topaketa
### NELL-EN ESKOLA. INTERNET ETA TEKNOLOGIEN ERABILERAN AHALDUNTZEKO LANTEGIAK
*Gorka Julio*
**18:00-20:00 EU**
Izen-ematea aldez aurretik.
Ubik, Lantegia

*Nell-en eskola* internet eta teknologien erabileran ahalduntzea bilatzen duen topaketa da, eskeintzen dizkiguten baliabideak menperatu eta sortzen zaizkigun arazoak gainditzu.
Hilero, gai desberdinak landuko ditugu lantegi teoriko-praktiko-parte-hartzaileen bidez:

**Urriak 4 -- Lizentzia libreak**
Creative Commons, lizentzia libreak, copyrigth... Zer dira? Zertarako erabili ditzakegu?
Non aurkitu lizentzia librea duten eta erabili daitezken irudiak, audioak, bideoak eta edukiak? Hori dena eta gehiago ikasiko dugu lantegi honetan.

**Azaroak 8 -- Software eta hardware librea**
Zer da Software librea? Fidagarria da? Nola atera diezaiokegu probetxua? Gauza bera dira doako programak eta software librea? Eta Hardware librea? Zein da bere lekua software librearen filosofiaren barne?

Guzti hau ezagutzeko aukera duzu *Nell-en eskolako* saio honetan.

**Abenduak 13 -- Programazio hastapenak**
Irakurtzen ikasten dugun bitartean idazten ikasten badugu, zergatik ez dugu programatzen ikasten programak erabiltzen ditugunean?
Nell-en eskolako saio honetan programazioaren oinarriak ikasiko ditugu eta programatzen jarraitu ahal izateko tresnak ezagutuko ditugu.

AZAROAK **5, 12, 19, 26** (larunbata)
Lantegia
### ARDUINOA EZAGUTUZ
*Unai Gorrotxategi Sabino*
**11:00-13:00 EU + ES** / Adina: +18 urte
Izen-ematea aldez aurretik.
Ubik, Lantegia

Gailu edo robot bat sortzeko aukera izango bagenu, zein funtzio eta ahalmen txertatuko genizkioke? Arduino bezalako txip programagarriak gure eskura daude. Zuk ere programatu ditzakezu: aterki eguraldi iragarleak, baratza adimendunak, etxea kudeatzeko domotika sistemak... Hardwarea, software librea eta gure imaginazioarekin zerbait sortzera goaz.

## ESPAZIOAK ETA ARKITEKTURA

URRIA, AZAROA, ABENDUA
(asteartero)
Lantegia
### YOUNG ARCHITECTS CLUB
*La Casa del Vacio*
17:30 - 19:30 EU + EN / Adina: 11-16 urte
Izen-ematea aldez aurretik.
Ubik, Lantegia

*Young Architects Club* arkitektura eta hirigintza proiektuak sortzeko froga laborategia da. Bertan gazteek dimentsioa, planoa, bolumena edo geometria bezalako kontzeptuak landuko dituzte.
Eredu adierazgarriak erabiliz eta saiakera-errore ariketak eginez, parte-hartzaileek estruktura desberdinak marraztu, sortu eta eraikiko dituzte modu aske eta autonomoan, sorkuntza eta talde lana sustatuz.

*Euskeraz eta ingelesez garatuko den lantegia.*

## BESTEAK

URRIA, AZAROA, ABENDUA
(asteazkenero)
Lantegia
### ASTEAZKENETAN UBIKEN
**17:30-19:00 EU /** Adina: 6-10 urte
Izen-ematea aldez aurretik.
Ubik, Lantegia

Asteazkenero, Tabakalerako Ubik sorkuntza liburutegiko gai ezberdinak deskubritu ahal izango ditugu ekintza ezberdinak proposatuz. Haurrei zuzendurik, elkarrekin sormena lantzea eta ondo pasatzea izango dira helburu.

URRIAK **8**, AZAROAK **12**, ABENDUAK **10** (hileko bigarren larunbata)
Lantegia
### HORKONPON. KONPONKETA LANTEGIA
**10:00 - 14:00 EU + ES**
Ubik, Lantegia

HorKonpon, herritarren autonomia (do it yourself) eta ezagutza partekatzea bultzatzen duen lantegi irekia da. Egunerokotasunean erabiltzen ditugun tresnen konponketa eta berrerabilpena hartzen ditu oinarri talde lana sustatuz (do it together).

Funtzionatzen ez duten gailu eta tresnak hartu eta hurbildu zaitez gurekin konpontzera!

*Ekintza hau DSS2016EUrekin elkarlanean antolatzen da.*

URRIAK **20** (osteguna)
Aurkezpena
## GIZA LIBURUTEGIA
**11:00 - 13:00 EU + ES**
Ubik, Autoedizio txokoa

*Giza Liburutegia* pertsonetan eta haien bizipenetan, esperientzietan eta ezagutzaren bidez sortzen diren harremanetan oinarritzen da. Elkarrizketa gurutzatuen bidez, protagonistek bizi istorio eta interes propioak partekatuko dituzte parte-hartzaileekin, solasaldia eta harremanak sustatuz.

*Plus 55-ekin elkarlanean*

URRIAK **24, 25, 26** (Astelehena > asteazkena)
Topaketa
## LIBURUTEGIAREN EGUNA

*Liburutegiaren Egunaz* baliatuz, GLAMaren inguruan antolatu ditugu ekintzak aurten. GLAMwikia liburutegi, museo, artxibo eta galerien Wikipedia proiektua da. Zernolako proiektuak daude abian? Zein egitasmo daude euskal erkidegoan tokiko edukiak Wikipedian txertatzeko? Guzti hau eta beste sorpresaren bat, Donostiako liburutegi sareak (Donostia Kultura), Koldo Mitxelena Liburutegiak (GFA) eta Ubik, Tabakalerako sorkuntza liburutegiak elkarlanean antolatuta.

AZAROAK **5 > 12** (larunbata > larunbata)
Topaketa
## KOMIKILABEA. KOMIKIAREN ASTEA
Ubik

Komikiak, istorioak modu grafiko eta bisual batean kontatzeko moduak dira. Marrazkiak eta ilustrazioak erabiliz, modu sekuentzial batean, fikziozko eta ez fikziozko istorioak kontatzeko aukera ematen digute. Testuez gain, irudiek, koloreek, erritmo eta planoek kontakizunean murgiltzen lagunduko gaituzte, sentsazio eta bizipenak barneratuko ditugularik.

Ez fikziozko istorioak oinarritzat hartuta, Ubikek aurkezpen eta lantegiak proposatzen ditu komiki sozialen mundura gerturatu ahal izateko.

DSS2016EU eta Gipuzkoako Foru Aldundiko kultura sailaren elkarlanetik sortu da, eta hiriko hainbat kultur eragileren babesa du: Donostia Kultura (Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea eta Donostiako udal liburutegien sarea), Kutxa Kultur, Kunshtal Goi Mailako Diseinu Zentroa, Kaxilda eta Tabakalera.

AZAROAK **6 > 12** (igandea > larunbata)
Lantegia
## STORYLINE. KOMIKI KOLEKTIBOA EGITEN
***Ibai Aizpurua, Luis Doviso, Mai Egurza, Paula Estevez, Joseba Larratxe, Aritz Trueba.***
**10:00 - 14:00 / 16:00 - 20:00 EU + ES**
Ubik

Hemen erronka: guztien artean komiki bat egitea!

Ausartzen zara? Astebetez komikigile izateko aukera duzu. Komikilari trebeak lanean ikusteaz gain, guztiek parte har dezakegu komiki kolektiboa sortzen. Ideiak bildu, arkatza zorroztu eta zatoz!

AZAROAK **9** (asteazkena)
Aurkezpena
## KOMIKIZ, EZINBESTEAN! DAVID ZAPIRAINEN KOMIKI SOZIALEN AUKERAKETA
***David Zapirain***
**18:00 - 19:30 EU**
Ubik

Gatazkak, gudak, mugimendu sozialak, gutxietsien gatazkak... Komikiak ere badira gaur egungo egoera ezagutzeko lehio paregabea.
David Zapirainek Ubiken ikusgai egongo diren komiki sozialen aukeraketa egin du. Zeintzuk izan dira jarraitu dituen irizpideak? Zeintzuk dira ezinbesteko tituloak? Zatoz aurkezpenera eta izenburu nabarmen guzti hauek ezagutuko dituzu. Maileguan ere eraman ditzakezu.

AZAROAK **10** (osteguna)
Lantegia
## SUPERWOMEN. OHIKO IKUSPUNTUARI BEGIRADA BERRIA
***Ainara Azpiazu, Axpi***
**18:00-19:30 EU**
Ubik

Idazleak, irakurleak, marrazkilariak, pertsonaia nagusiak... Zer leku hartzen dute emakumeek komikietan? Abiapuntu bezala Bechdel-en Testa hartuz, lantegi honetan emakumeek komiki munduan duten tratua, presentzia eta funtzioak aztertuko ditugu.

ABENDUAK **27, 28, 29, 30**, URTARRILAK **3, 4, 5**
(asteartea > ostirala)
Lantegia
## NEGUKO LANTEGIAK
**10:00 - 14:00 / 16:00 - 20:00 EU + ES**
Izen-ematea aldez aurretik.
Ubik, Lantegia

Jaiegunak izan da, garai hoberik ba al dago Ubikera etorri eta lantegietan parte hartzeko? Haur eta helduentzat, goiz eta arratsalde, pentsamendu, soinu edo ikus-entzunezko gaiak jorratuko ditugu. Laster informazio gehiago gure agendan eta webgunean.



# SORTZAI-LEEN GU-NEA

Sortzaileen Gunea artista eta eragile kulturalen profesionalizazioa laguntzeko sortutako zerbitzua da. Gune honek, alde batetik, sorkuntzarako baliabideak eskeintzen ditu (lanerako estudioak, baliabide teknikoak, egonaldi programa); bestetik, praktika garaikideen ikusgarritasuna sustatzeko programa ere garatzen du, bai eta gai administratiboen, beken eta deialdien inguruan informazioa eta aholkularitza.

Aurkibidea

KOMISARIOTZA PROGRAMA: IKERKETA KOMISARIOTZA
ENDPLAY: AN OBSERVATORY
EGONALDIETARAKO DEIALDIA / 2017

AZAROAK **14 > 18** (Astelehena > ostirala)
Mintegia
## KOMISARIOTZA PROGRAMA: IKERKETA KOMISARIOTZA
*Katerina Gregos-ek koordinatua*
*Gonbidatuak: Johan Gimonprez, Adelita Husni-bey*
**10:00 - 13:00 / 15:00 - 18:00 EN**
Izen-ematea aldez aurretik.
Hautespen prozesua egongo da.
*Komisarioei eta praktika artistikoekin lotutako profesionalei zuzendua.*
Lantegia

Demokrazia, eskubideak, kolonialismoaren ondarea, historiografia, ezabatutako narratibak eta politikoki erantzuten diren aferak, adierazpen askatasunaren mugak edota errefuxiatuen krisia bezalako gaiak landuko dira. Mintegi honek ikerketatik abituta errepresentazioaren inguruko gatazkak aztertuko ditu politikoa den haren komisariotzarekin harremanetan jarriz. Bestalde, ikerketa, praktika artistikoetara nola itzultzen den aztertuko da.

ABENDUAK **3** (larunbata)
Aurkezpena + solasaldia
## ENDPLAY: AN OBSERVATORY
*Lisa Nelson*
19.00
Eraikineko leku desberdinetan

Tabakaleran burututako laborategiaren ondoren Lisa Nelson artistak EndPlay: An Observatory izeneko lanaren aurkezpena egingo du. Ekintza bakarretik eratorritakodantza baten jaiotzaren lekukoak izango gara bertan, gorputzaren kutsatzea irudimenaren bidez, ondorioen dantza, iritziaren antzerkia, gorputzaren zirkunstantziak argitzen dituzten arreta eta asmoen bat-egite galkorra.

Azala eta Tabakaleraren arteko elkarlana.

> AZAROAK **5** (larunbata)
Deialdia
## EGONALDIETARAKO DEIALDIA / 2017
Izen-emate epea 2017 ko azaroaren 5a arte dago irekia.
+ Info eta oinarriak: www.tabakalera.eu

Tabakalerak 2017an egonaldi artistikoetan parte hartzeko deialdia zabaladu du. Irailaren 23tik aurrera izen-emate epea irekita egongo da proiektuen aurkezpenerako.

Egonaldi modalitate ezberdinak eskaintzen dira: komisariotza, proiektu artistikoen garapena, bertako/ez-bertakoa (artista kultur eragile lokalak, bertakoa ez den artista edo kultur eragile bat gonbidatzen du proiektu baten garapenerako); ikus-entzunezkoa, ikerketarako egonaldia (DSS2016EUrekin elkarlanean) eta ekoizpenerako laguntzak.


*EndPlay: An Observatory*

# OHARRAK

## BISITAK

Erakusketak ezagutzeko eta eraikinaren historia eta memoriara hurbiltzeko ibilbideak eskaintzen ditu Tabakalerak.

IKASTETXEAK ETA ELKARTEAK
Taldeei zuzenduta, Ibilbide Tailerrak eskaintzen ditugu arte garaikidera hurbiltzeko helburuarekin. Erreserba egiteko jar zaitez hezkuntza arloarekin harremanetan: **hezkuntza@tabakalera.eu** helbide elektronikoan edo **+34 943 118 855** telefono zenbakira deituz.

BISITA PRIBATUAK
Bisita pribatu bat eskatzeko (euskaraz, gazteleraz, ingelesez, frantsezez edo alemanez) jar zaitez harremanetan Informazio puntuarekin: **info@tabakalera.eu** helbide elektronikoan edo **+34 943 118 855** telefono zenbakira deituz.

BISITA HISTORIA, OROIMENA ETA LANA
Tabakalerako historia eta memoria ezagutzeko eta *Mañana Goodbye* proiektura hurbiltzeko bisitak. +Info: 18 or.
Erreserbak: **info@tabakalera.eu** edo informazio puntuan.

BISITA SOLASALDIAK ETA BISITA ESPERIMENTALAK
Erakusketak ezagutzeko bisitak. +Info: 17 or.
Erreserbak: **info@tabakalera.eu** edo informazio puntuan.

## AKTIBITATEETAN IZEN-EMATEA

Izen-ematea aldez aurretik egitea eskatzen duten aktibitateetan parte hartzeko, www.tabakalera.eu edo informazio puntuan eman izena.

ZINEMA SARRERAK:

· www.tabakalera.eu
· Informazio puntuan
· Leihatilan emanaldia baino 30' lehenago
· Prezioa: 3,50€

## IRISGARRITASUNA

Eraikina dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako zein familientzako egokituta dago hein handi batean.

Gurpildun aulki bat dago erabiltzaileon eskura. Zeinu Hizkuntza Interpretazio Zerbitzuarekin (ZHIZ) bisitak erreserbatzeko aukera ere badago.
ZINEMA: Zinema aretoak Bukle magnetiko sistema eta sei besaulki egokitu ditu, lehen ilaran.

## TABAKALERA TXARTELA

Tabakalera txartela eskuratzeko aukera dago Ubik, Tabakalerako sorkuntza liburutegiaren harreran (2. solairua).

*NOTA: Eskuorri honetan argitaratutako informazioak aldaketak jasan ditzazke. Azken eguneraketak ikusteko web orria kontsultatu.*




**Informazio puntua**

**Igogailuak**

**WC**

**Aldatzeko mahaia**

**Eskaileak**
Escaleras
Stairs

**KUPULA Jatetxea**

**TABA**

**Hotela-Egoitza**

+info
**www.tabakalera.eu**

## SOLAIRUA

## 0

1 **SOTOA**
2 **PLAZA**
3 **KUTXA KULTUR ARTEGUNEA**
4 **NANA**
5 **LÄNTOKI**
6 **ARTEUPARTE**
7 **NON GALLERY**
8 **EL SEKADERO**
9 **KABIAGUNEA**
10 **TABA**

## 1

1 **TABAKALERAKO ERAKUSKETA ARETOA**
2 **PATIOA**
3 **ZINEMA, 1 ARETOA**
4 **Z ARETOA**
5 **HEZKUNTZA ARETOA**
6 **KUTXA KULTUR KLUBA**
7 **KUTXA KULTUR ARTEGUNEA**
8 **MISCELANEA**
9 **HOTELA-EGOITZA**
Laster zabalik
10 **1 ESPAZIOA**

## 2

1 **UBIK**
**Tabakalerako sorkuntza liburutegia**
2 **DONOSTIA ZINEMALDIA**
3 **EUSKADIKO FILMATEGIA**
4 **ZINEMA, 2 ARETOA**

## 3

1 **TABAKALERAKO BULEGOA**
2 **HIRIKILABS**
3 **LANTEGIA**
4 **EKOIZPENA**
5 **ESTUDIOAK**
6 **K ARETOA**
7 **ZINEUSKADI**
8 **ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA**
9 **IMPACT HUB DONOSTIA**

## 4

1 **KUTXA KULTURGUNEA**
2 **ZABALTZA**

## 5

1 **PRISMA**
2 **TERRAZA**
3 **KUPULA**
**Jatetxea**

Tabakalera kultura garaikideaz gozatzeko espazio publikoa da. Sarrera doako du.

TABALKALERA

**KULTURA GARAIKIDEAREN NAZIOARTEKO ZENTROA**

## ORDUTEGIA

**ZENTROA**

Astelehenetik ostegunera:
**08:00 - 22:00**

Ostirala:
**08:00 - 23:00**

Larunbata:
**10:00 - 23:00**

Igandea eta jaiegunak:
**10:00 - 22:00**

**UBIK**

**Sorkuntza liburutegia.**

Asteartetik larunbatera:
**10:00 - 14:00**
**16:00 - 20:00**

Igandea eta jaiegunak:
**10:00 - 14:00**

**ERAKUSKETAK**

Asteartetik ostegunera:
**12:00 - 20:00**

Ostirala:
**12:00 - 21:00**

Larunbata:
**10:00 - 21:00**

Igandea eta jaiegunak:
**10:00 - 20:00**

**+Info:** info@tabakalera.eu · 943 11 88 55 · Andre zigarrogileak plaza 1,
20012 Donostia / San Sebastián · Gipuzkoa

**tabakalera.eu** **#gozatutabakalera**

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

DSS2016.EU